

*Parte hartu!*

Olatu Talka

2014/05/20 | 7

250 jarduera baino gehiagoko egitarauak hiria astinduko du asteburu honetan

Olatu Talka kultur jaialdia hasteko hiru egun besterik ez dagoen honetan, Donostia 2016k eta Donostia Kulturak 250 jarduera baino gehiagoz osatuta dagoen asteburu bat azken xehetasunak ixten dihardute.



Aurreko prentsaurrekoetan aurkeztu dituzte egitarau zabal horren [bizkarrezurra osatzen duten sei gai-arlo nagusiak](#), eta horiek barne hartzen dituzten kartel buruak: zuzeneko musika (Talkalive); gastronomia eta aniztasuna (Sukaldanitzak); teknologia berriak (Hackathon); hirigintza (Haurbanistak); infusioak, hau da, profesional eta amateurren arteko lankidetzak; eta mugikortasuna (Ziklobia).

Bestalde, egitarauak toki zehatzetan lokalizatuko diren [beste zenbait arlo tematiko ere hartzen ditu barne](#): zinea (2016 Gunea), arte eszenikoak (Errege Katolikoak), tailerrak eta merkatuak (Bilbao plaza), komunikazioa (Okendo plaza), kirola (Katalunia plaza/Sagues), elkartasuna (Cervantes plaza) eta arte plastikoak (Gipuzkoa plaza).

Gainera, eta aurreko edizioetan bezalaxe, programazioa sakabanatu eta hedatu egingo dute, **jarduera-gune bakarra erdigunea izan ez dadin**, eta **hiriko auzoetan eta lurraldeko zenbait herritan** ere ekintza-sortak egin daitezten. Horrela, bada, auzoetako gehienak, berriz ere, gune beroak izango dira, jarduera asko bilduko dituztelako.

Seinaleztapena

Jaialdiko astebururako giroa berotzen hasteko, eta toki bakoitzean egongo diren jardueren buruzko jakin-mina sortzen hasteko, hainbat jarduera hartuko dituzten gune bero batzuetan seinaleztapena jarri dute, **Olatu Talkaren logoarekin eta QR kode bat duten biniloekin**.

Hirian aurkitu ahal izango dituzten biniloetan eta esku programaren kontrazalean dagoen QRa kode-irakurle baten bidez dezifratzen duten herritarrek jaialdiaren egitarau osoa kontsultatu ahal izango dute modu errazean edozein dispositibo mugikor erabiliz.

Aipatu aplikazioa **ZukZeuk** izeneko elkarte kulturalak sortu eta garatu du. Elkarte honen helburua zera da: norberak kudeaturiko kultura alternatibo bat sustatzea, eta tokiko eszena dinamiko, ireki eta zeharkako bat bultzatzea da, Donostia eta inguruko bizilagun guztientzat.

Bazkaria bertako produktuekin

Jaialdiari azken ukitua jartzeko, igande eguerdian Olatu Talkako jardueretan parte hartu duten mila lagunetik gora hartuko dituen bazkari bat egingo dute. ***Bertakoa jan, osasuntsu bizi* leloa izango duen kultur bazkari masibo horrek balioan jarriko ditu tokiko produktuak eta jaialdiko parte-hartzaile ezberdinen arteko sozializazioa, elkartzea eta elkarrietzeta sustatuko ditu.**

Bazkaria Easo kalean bertan egingo dute, Easo kaleko zati batean, Araba parkearen eta 2016 gunearen artean. Antolaketa- eta logistika-arrazoiak direla medio, bazkarirako **bonoa jasoko duten Olatu Talkako parte-hartzaileentzat soilik izango da bazkaria**.

Olatu Talkaren azken egunaren jarduera jendetsu eta animatuena izango da, baina ez da izango, ordea, azkeneko jarduera; igandearen bukaeran beste hainbat jardueraz gozatu ahal izango da.

Bazkaria ondorengo erakundeek laguntzari esker egin ahal izango da: BMk menua osatzeko behar izan diren jaki guztiak eskaini ditu, kalitatezko tokiko produktuen alde egin duen apustuaren baitan; Gipuzkoako Sagardogileen Elkartek, berriz, sagardoa eskainiko du bazkarirako; eta Insalusek, azkenik, ur-botilak jarriko ditu.

Olatu Talka zuzenean

Jaialdiaren webguneak, diseinua egokitu du azken egunotan, eta baita edukien eskema ere, herritarrei nabigazioa errazteko eta bakoitzaren interesen arabera jardueren bilaketa egin ahal izateko.

Duela egun batzuk, egitaraua osatzen duten jarduera guztiek beharrezko informazio guztia jasotzen duen fitxa bat daukate webgunean; horrez gain, **esku programa ere eskuragarri dago** PDF formatuan.

Ohi bezala, azken orduko aldaketak eta informazio praktikoa ondorengo tokian kontsultatu ahal izango da: www.olatutalka.eu/aldaketak.

Olatu Talkaren antolatzaileek gonbita luzatu die herritarrei jaialdiaren webgunean sartu eta **euren menu kultural propioa egin dezaten**.

Sare sozialak

Olatu Talkaren sare sozialek jarduera intentsua izango dute jaialdiaren egunetan ere. Olatu Talkak **Facebooken duen orrian** denbora errealean emango da jarduera guztien eta gertakari bitxiarren berri. Horrez gain, **DSS2016Uren Twitter kontuan** kaleko giroa antzeman ahal izango da **#olatutalka** traolaren

bidez.

Argazkilaritza zaleek, bestalde, Olatu Talkaren Instagram sare soziala izango dute erabilgarri, eta herritar hauentzat bereziki sorturiko zozketa bat abiarazi dute Olatu Talkako antolatzaileek. Baldintza bakarra **Olatu Talka Instagramen jarraitzea (@olatutalka) eta argazkiak #olatutalka eta #astinduhiria traolen bidez datorren asteazkenera arte, ekainak 4, igotzea da.**

Zozketan bi gai ezberdin proposatu dituzte: bata, Donostia hiria, eta bestea, Olatu Talka jaialdiaren jarduerak, betiere, *Astindu hiria!!!* jaialdiaren esloganarekin loturiko ikuspegi ezberdin bat eskainiz.

Ekainaren 5ean bi argazki aukeratuko dituzte, gai bakoitzeko bat, eta **saritzat bi lagunentzako bi afari emango dituzte**: bata Petritegi sagardotegian, eta bestea Lizeaga sagardotegian. Ez da Olatu Talkaren Instagram profilean gertatuko den sorpresa bakarra izango, eta beraz, antolatzaileek sare sozial honi adi egoteko gonbita luzatu dute.

Oraindik parte har daiteke

Olatu Talkaren egitaraua osatzen duten hainbat jardueratan oraindik parte har dezakete herritarrek. Aurretiko izen-ematea eskatzen duten ekintzetatik, ondorengo hauetan oraindik badago tokia:

Garbibai

Stand up paddle lasterketa batean parte hartu bitartean, Urumearen ibaiertzak garbituko. Ibilbidea Lehendakari Agirre zubian hasiko da eta Martutenen amaituko.

- **Data:** Maiatzak 24, 10:00etatik 15:00etara.
- **Tokia:** Lehendakari Agirre zubia.
- **Izen-ematea:** [inscripciones\[abildua\]garbibai.org](https://inscripciones[abildua]garbibai.org).
- **Antolatzailea:** Gondolin Klub.

Culinary market show

Gertura zaitez La Bretxa merkatalguneko 'Zurekin Sukaldatzen' espaziora eta gozatu Aitzol Zugaztik (Basque Culinary Center-eko sukaldaria) eskainiko duen showcookingarekin.

Sukaldaritza erakustaldi honetan garaiko produktuekin pintxoak prestatuko dituzte.

- **Data:** maiatzak 24, 12:30etik 14:00etara,
- **Tokia:** Bretxa merkata, Cocinando Contigo Gunea.
- **Izen-ematea:** [cocinandocontigoo\[abildua\]gmail.com](mailto:cocinandocontigoo[abildua]gmail.com).
- **Antolatzaileak:** Basque Culinary Center, CC Bretxa, Cocinando Contigo,

Sukaltalka

Sukaldari ona zarela pentsatzen baduzu edo gastronomia gustuko baduzu, zatoz eta goza ezazu eskaintzen dizkizugun ekimen desberdinekin: tailerrak, produktu eta ekoizleen erakusketa, dastaketak, pintxo eskaintza...

- **Data:** maiatzak 23, 24 eta 25, egun osoan zehar.
- **Tokia:** Donostiako Bulebarra.
- **Antolatzaileak:** Sukaltalka.

Ekainaren 1ean Ziklobia

Aurten, Olatu Talka ez dute asteburu bakarrean egingo, bitan baizik. **Berrikuntza garrantzitsua da,**

jaialdiaren jarduerak lau egunetan banatuta egongo baitira: maiatzaren 23, 24 eta 25a izango dira jaialdiaren lehen hiru egunak eta, hurrengo asteburuan, ekainaren 1ean, Ziklobiaren eguna izango da.

Aurreko bi edizioetan izandako arrakasta dela eta, antolakuntzak erabaki du egun oso bat eskainiko diola jarduera horri. Egun osoan zehar, **Ziklobia egiten den bitartean, beste jarduera osagarri batzuk ere antolatuko dituzte, ibilbidean bertan igande osorako plana egiteko.**

Ziklobiari buruzko informazio guztia datorren astean aurkeztuko dute, maiatzaren 27an, asteartea, behin Olatu Talkaren lehen asteburua igaro ostean.

Harremanetan jartzeko

Webguneaz gain, Olatu Talkaren lantaldeak telefono zenbaki bat eta helbide elektroniko bat jarri ditu herritarren eskura:

- **Telefono zenbakia:** 673 39 88 45.
- **Emaila:** [olatutalka\[abildua\]olatutalka.eu](mailto:olatutalka[abildua]olatutalka.eu).



Euskarak Easo plaza hartuko du



«Faltan tres días para remover la ciudad»



Animan a participar en el festival Olatu Talka que brinda 250 actividades

Harpidetu

Lotutako albisteak:

[Otordua 25 euroan luxuzko hogeitazetxetan](#)

[Belakoren 'backstage' -ean](#)

[Kalean da dagoeneko 2014ko Olatu Talkaren egitarau osoa](#)

[Nola ikasten duzu andereño izaten?](#)

[Global Humanitariaren ruta solidarioa Donostiara iritsiko da igandean](#)

💎 250, jarduerak, portada

< Muinoa, komentua eta bainuetxea babestuko ditu San Bartolomeko hirigintza proiektuak

32.000 litro olio birziklatu dituzte donostiarrek bi hilabeteen, edukiontzi laranja berrien bidez >

Profila

[Sartu Twitter kontuarekin](#) [Sartu Facebook kontuarekin](#)

edo

Izena

E-posta

Ez publikatua

Webgunea

BIDALI MEZUA

7 erantzun

0 Comments

7 Tweets

0 Facebook

0 Pingbacks

1 hour ago da azken erantzuna

[@DonostiaGaur](#)

Ikusi 1 hour ago

250 jarduera baino gehiagoko egitarauak hiria astinduko du asteburu honetan @DSS2016

#olatutalka <http://t.co/skeCfZxG2O>

ERANTZUN

[@DonostiakoUdala](#)

Ikusi 1 hour ago

[Gaur] 250 jarduera baino gehiagoko egitarauak hiria astinduko du asteburu honetan

<http://t.co/qeMYSz0LvY>

ERANTZUN

Ezinbestekoak

Mai

20

Ar.

Amarauna argazki bilduma interneten

Egiako Euskararen Astea

18:00 Arreta osoko meditazio tailer praktikoa (Mindfulness)**19:00** El Camino Santiago, Xose Vilaboa**19:30** 'Hiritarren adierazpena European... Mugarik ba al du?', Tere Irastortza

Plaza



Julen Madina ha presentado el primer programa de coaching para empresas que utiliza el "Encierro" como herramienta de desarrollo para equipos [2014/05/16](#)

El "Encierro" comparte vínculos importantes con el mundo de la empresa como son la importancia del

control de las emociones, la toma de decisiones [Gehiago](#) »

16, 17 y 18-M: Jornadas Budistas Donostia 2014/05/14

Por tercer año consecutivo se han organizado las Jornadas budistas con el mismo deseo de presentar aspectos de la doctrina de Buda desde la [Gehiago](#) »

‘Auzo eta Herriak Donostia Indartzen’

**AUZO ETA HERRIAK
DONOSTIA INDARTZEN**
Herritarrekin bilera irekiak

Hemen da konposta!



Mapako datuak: ©2014 Google Earth basatzen BOM de GND España

Joko Garbia





dBizi



Objektu galduak



Gaiak

Donostia 2016

Multimedia Saila

Oharren harpidetza

TAO

Trafikoa

Turismoa

IKUSIENAK

AZKENAK

IRUZKINAK

Azken 30 urteotan, ia bikoiztu egin da Donostiako euskaldunen kopurua

2014/05/15



Otordua 25 euroan luxuzko hogei jatetxetan

2014/05/19

Albizu: "Gizarte laguntzetara bideratutako udal gastua %200 igo da legealdi honetan"

2014/05/19



Muinoa, komentua eta bainuetxea babestuko ditu San Bartolomeko hirigintza proiektuak

2014/05/20



250 jarduera baino gehiagoko egitarauak hiria astinduko du asteburu honetan
2014/05/20

Donostiari buruz

[Los veteranos también se apuntan a la Donosti Cup – Diario Vasco](#) 2014-05-16

Los veteranos también se apuntan a la Donosti CupDiario »

[Exteriores se compromete a publicitar por el mundo Donostia 2016 – Diario Vasco](#) 2014-05-15

Exteriores se compromete a publicitar por el mundo Donostia »

[Belako encabeza el cartel del Día de la Música en Donostia – Noticias de Gipuzkoa](#) 2014-05-15

Noticias de GipuzkoaBelako encabeza el cartel del Día de »

[Donostia, la ciudad del Estado más cara para vivir – Noticias de Gipuzkoa](#) 2014-05-14

Noticias de GipuzkoaDonostia, la ciudad del Estado más cara »

[Se produce un incendio en el edificio de Aspace de Donostia – Diario Vasco](#) 2014-05-14

Se produce un incendio en el edificio de Aspace »

[Un boleto validado en Donostia gana 1,7 millones en la Bonoloto](#) 2014-05-14

»

[Un boleto validado en Donostia gana 1,7 millones en la Bonoloto](#) 2014-05-14

»

[Ertzaintzak bi lagun atxilotu ditu, bikotekidea eta bikotekide ohia jotzea egotzita](#) 2014-05-14

Andre bat atzeman zuten atzo goizean, 39 urtekoa, urruntze »

[Ertzaintzak bi lagun atxilotu ditu, bikotekidea eta bikotekide ohia jotzea egotzita](#) 2014-05-14

Andre bat atzeman zuten atzo goizean, 39 urtekoa, urruntze »

[Más de 1.800 dorsales repartidos para el Medio Maratón de Donostia – Diario Vasco](#) 2014-05-14

Más de 1.800 dorsales repartidos para el Medio Maratón »

[Judu eta palestinarrak Donostian](#) 2014-05-13

Maiatzak 12, Donostiako Kresala Zinekluba Kutxako Arrasate kaleko aretoan, »

[“Una vuelta a Donostia. Cabalgando en bici”](#) 2014-05-13

POR JESÚS MARÍA ALQUÉZAR

¿Otra? ... No, es »

[Cobeaga rueda en Donostia su tercer filme, inspirado en Jesús Eguiguren – Deia](#) 2014-05-13

DeiaCobeaga rueda en Donostia su tercer filme, inspirado en »

[Tenerife, Collblanc de Barcelona y Easo Donosti, rivales de Gandia en la fase – levante.emv.com](#) 2014-05-13

Tenerife, Collblanc de Barcelona y Easo Donosti, rivales de »

[En Donosti están molestos con la LFP – El Periódico Mediterráneo](#) 2014-05-13

En Donosti están molestos con la LFPEl Periódico MediterráneoEn »

Bulego birtuala

Administrazio kontratazioa
Erregistro telematikoa
Herritarren txartela
On-line ordainketak
Tramiteak
Udalaren lan eskaintza
Udalinfo: Herritarren Arreta
Zerbitzuak

Udala

Administrazio egitura
Hiriko gobernua
Udal administrazioa
Udal batzarrak
Udal gardentasuna
Udal korporazioa

Hiria

1813-2013
Auzoak
Berdintasuna
Ekonomia eta enplegua
Etxegintza - Etxebizitza
Euskara
Festak
Gizarte zerbitzuak
Herritarren partaidetza
Hiri hezitzailea
Hirigintza
Hiritarren segurtasuna
Ingurumena
Kirola
Kultura
Mugikortasuna

Osasun publikoa
Parkeak eta lorategiak
Polloe
Trafiko eta garraioa
Udal webguneak

Turismoa

Donostia Turismoa
Erreserba zentrala
Hondartzak
Multimedia saila
Ostatuak
Udal aterpetxeak

Donostiako Udala | Lege oharra

